

hondo-hondotik

Pedro Pablo Arrinda

(Gizarte Zientzietako irakaslea)

Balioetan hezte

Gaur egun kultura guztiak daude behartuta giza eredu bat osatzera, eta berorrek erabakitzen du, zuzenki edo zeharka, gizaki horren jarra, jokamolde eta pertzepzio eredu.

Mendebaldeko gizarte aurreratuenen izaeran, nahitaezko eragina du garapen ekonomikoaren ereduak gizabanakoaren mundu ikuskeran. Lan esparruari so egiten badiogu, gure gizarteak industria-ondokoak dira. Teknifikazio maila handidun gizarteak dira, enpresen izaera multinazionalak eraginda fabrikak munduan zehar izan ditzakete barreiatuak, behar ginen lan ordutegiak aldakorak (bi, hiru, zein lau txandakoak) dira eta emakumezkoa lan merkatuan sartzen ari da.

Teknifikazio maila altua eskatzen zaio langileari eta ondorioz teknologia jakin batzuk eskuratzeko aukerarik ez dutenak bazterketa laborala jasaten ari dira gaur egungo jakintza gizarte berri honetan. Beraien lanpostuen prekarietatea eta egonkortasunik eza sintomatikoak dira, eta horren isla dugu gutxieste-koa ez den aldi baterako lan enpresen ugaltzea.

Lana aurkitu beharrak askotan dakarren bizileku aldaketa dela eta, gizabanako zein familia askok ez du leku geografiko egonkorrik, horrek dakarren kultura identifikazio faltarekin eta isolamendu soziokultural esanguratsuekin. Bestalde, lan ordutegi aldaketa nabarmenak Balioen transmisio era tradizionala izan den familiarteko erlazio gunea eten du; azkenik, emakumearen laneratzeak, umeen heziketa afektiboa hezkuntza sistemaren esku utzi du.

Produktio era berri hauek, zeharo aldatu dute pertsonen arteko erlazioen izaera; zaila da leku eta denbora komunak aurkitzea elkarrekin komunikatzeko. Aldaketa honek sinesmen, balio eta gizarte jokamolde tradizionalen gainbehera ekarri du, alde batetik (*It's a real nowhere human being sitting on his nowhere land making all his nowhere plans for nobody*), eta bestetik, ez dira asimilatu gizarte postmodernoak ekarri dituenak: gune anitzeko eta esanahi anitzeko mundua, gizabanakoak bizitzari zentzua (gertaren esanahia eta bere ekintzen helburua ezarriko duena) emateko bere-berea duen sistema sortu beharko dueneko mundua, alegia. Gurasoek ez dakite jaso zituzten Balio eta jokamolde ereduak egokiak diren, eta ondorioz, nahita zein inkonzienteki, bertan behera uzten dute arlo hori.

Egoera honen aurrean bi aukera ditugu, hezkuntza sistemak landu beharreko kontua izango da Balio sistema, edo hurrengo belaunaldiak noraezean utziko ditugu. Eskola Balio transmisio modu bakar bihurtuko/bihurtuko da.

Lehenengo eta behin, argi izan behar dugu, Balioak ez direla arrazoiak hautesmaten, sentimenduen bidez, baizik. Beraz, Balioen transmisioa ezin da estrategia eta berbaldien bidez egin, bizipenen bidez, baizik. Hori dela eta, zera azpimarratu behar da: garena transmititzen dugula eta ez esaten duguna.

Gizarte eta gizakiaren balioak bultzatu behar ditugu eta horretarako ikasleak bere burua ezagutzen eta onartzen ikasi

behar du, bere gaitasunak garatzen, bi-tartekoak eskuratzeko, askatasuna irabazten eta bere erantzukizun pertsonal eta sozialak beregain hartzen. Era berean, besteekin bizi izaten ere ikasi behar du. Pertsona bakoitza bakarra da, errepikaezina, baina ezin da, haatik, besteak gabe bizi. Besteekin bizi izaten jakitea, ondo-koak estimatzen eta onartzen, amore ematen, munduaren erdia ez izaten, bizitzari besteekin batera begiratzeko jakitea da. Badaude, beraz, bizi izateko arrazoi eta sentimenduak: bakea, maitasuna, justizia, askatasuna, egia. Badaude era berean, merezi ez dutenak ere: gorrotoa, faltsukeria, bidegabekeria, inbidia.

Hori horrela, oinarriko balioa, pertsonarekiko begirunea da, bere ideia eta sentimenduak errespetatu behar ditugu eta horrek ez du eragotzi behar bakoitzak berekotzat sentitzen duena lasai adieraztea.

Pertsona eta taldeen arteko gatazkak saihestezinak dira. Gatazka ulertzeko hezi behar dugu, tentsioa sortzen duen arren, ez baita, nahitaez, galtzaile eta irabazleak izango dituen egoera. Gatazkak hezkuntzan gertatzen zaizkigun aukerak dira, hezkuntza aukerak, eta haien konponbidea elkarrizketaren eta elkarkidetzaren bidez baino ez da iritsiko, pertsonak haziz eta taldeak indartuz.

Erantzukizunaren mugak ez daude norberarengan. Heldutasuna besteei ere badagozkien ardurak hartzean lortzen da, besteei lagunduko dieten erantzuki-

zunak geure gain hartzean: «Dena gizakiarekin, gizakiarentzat».

Balioak eskuratzeko ezinbestekoa da autoestimua garatzea. Gizabanakoaren edo taldearen autoestimuan laguntzen badu bihurtuko da balioa balio, eta horrela lortuko da ikasleen jarrera positiboa indartzea. Topaketa informalek eskaintzen digute Balioen transmisiorako aukera paregabea, konfiantza eta sinesgarritasuna, momentu horietan azaltzen baitituzte ikasleek euren ardura, gurari eta arazoak.

Kontuan izan behar da, gainera, Balio eta esanahi sistema transzendentala, lehenago erlijio zentzua zuena, sekularizaturikoa ari dela ordezkatzen.

Eta aldaketa honek beronek diosku sistema horren beharrezina daukala gizakiak, bere ekintzei azken zentzua emango diena. Eskolak alor honetan orientazio lana bete behar du, teoria neoliberalak bultzatutako bat-bateko zentzua ematen duten sistemak ez dutela gizon-emakumeen sakoneko beharrezinak asetzen erakutsiz. Hori horrela, gizabanakoak, bakarka zein taldeka, aurkituko du bere sistema transzendentala, bere barne-muina aseko duena.

Reimsko katedralean harria txikitzen ziharduten hiru harginen istorioak grafikoki adierazten du aurrerago azalduko: «Zer egiten ari zara?» galderari, bategi zera erantzun zuen gogaitu aurpegiaz: «Harria txikitzen, ez duzu ikusten, ala?»; bigarrenak, apur bat ilusionatuta: «Nire seme-alaben eta emaztearen ongizatea eskuratzeko»; eta azkenak, ameslari: «Katedrala eraikitzen ari naiz».

BALIO TRANSMISIOA

Ezin da estrategia eta berbaldien bidez egin, bizipenen bidez baizik: garena transmititzen dugu eta ez esaten duguna

Kubaren jarrera irailaren 11z geroztik

(Aurreko orrialdetik dator)

la Nazioarteko Gurutze Gorriak kontrolatu ahal izango duela». Eta, ohi bezala, ohararren amaieran esan zuten prest zeudela lan-kidetzan aritzeko osasun laguntza ematen duten zerbitzuekin, «saneamendu programetan, basearen inguruan guk kontrolatzen ditugun guneetan bektore eta izurriten aurkako borrokaekin, eta mesedegari zein konstruktibo den edo giza laguntza eskatzen duen beste edozein eratan».

Adierazpen hori guztiz etsigarria izan da ezkerreko, mugimendu internazionalistako eta elkartasun mugimenduetako pertsona askorentzat. Dudarik gabe, harrigarria da ia guztientzat Kubako Iraultzak hain jarrera epela hartzea gai honetan, kontuan hartuta, gainera, Kubaren lurralde subiranotasunari berari eragiten diola.

Baina, eragin dezakeen nahigabe ukazina gorabehera, interesgarria litzateke gogoeta egitea Kubak hartutako jarrera ulertzeko funtsezkoak diren puntu batzuei buruz:

1. Probokazioan ez erori: Estatu Batuen ikuspegitik, zalantzarik gabeko probokazio elementuak ditu presoak Guantánamo eramateak —alde horretatik, badaude beste aurrekari batzuk, Kosovon oraindik orain izandako gerran, esate baterako—, eta erabakiak Kubako Gobernuak *probatu* nahi du. Gobernu horrek, ordea, zuhur eta neurritz jokatu du.

2. AEBetako Gobernuak eta herria berreztea: Kubak aurrerantzean ere argi eta garbi utzi nahi du gaitzesten duela irailaren 11ko eraso, behin eta berriz bereizi baititu Estatu Batuetako herria eta administrazioa.

3. Kubaren aurkako terrorismoa borro-

katzea: Kubako Gobernuak behin eta berriro esan du Kuba dela terrorismoa jasaten urte gehien daramaten herrietako bat, ia Iraultzak irabazi bezain laster hasi baitzen, hala nola fenomeno horrek ez diela Estatu Batuei soilik eragiten.

4. Ez hautsi migrazioa normalizatzeko prozesua: Guantánamoko basearen inguruko desadostasunak une beroa izan zuen *balseo*en krisian, 1994an, Estatu Batuetako Gobernuak milaka kubatar bildu baitzuten aipatu base horretan oso egoera txarrean. Kubako Gobernuak, maisutasun historikoarekin, Estatu Batuetako administrazioari *itzuli* zion migrazio- eta giza-krisi hura, eta ondoren migrazio akordio batzuk sinatu ziren. Ondorioz, Estatu Batuek urteko 20.000 bisa Kubako herritarren esku uzteko hitza eman zuten; era horretan, ez zuten zertan itsasora jo Estatu Batuetara emigratzeko. Kubak, dudarik gabe, ez dio aitzakiarik eman nahi Estatu Batuetako administrazioari emandako hitza bete ez dezan.

5. Aurrerantzean ere zuloak egin blokeoan: azterketa honetan, inola ere ezin da gutxietsi Kubaren eta Estatu Batuen arteko harremanen egungo egoera blokeo ekonomikoari dagokionez. Estatu Batuetako nekazaritzako enpresa industrialek zigorrak kentzearen alde egindako presioak, enpresa ordezkariak Kubara behin eta berriz egiten dituzten bisitak, Estatu Batuetan blokeoaren aurkako mugimendua gero eta handiagoa izatea, hala nola, azken horren indargarri, Miami eskuin kubatar-amerikarrak Elian kasuan izandako jokabide penagarria fruituak ematen ari dira. Alde horretatik, Kubako Gobernuak Estatu Batuetan, legeen *leuntzea* baliatuta, berriki elikagai kargamentu bat erosi izana oso eduki politiko handiko keinu bat da, bai eta Kubak harremanak normalizatzearan alde duen jarraz mundu osoari zabalduko mezu bat ere.